Debako Udala

Deba
ETORKIZUNA ORAIN

Debako Merkatari eta Ostalarien Elkartea • Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Deba

DEBALAI

# «LEHEN AUKERA HERRIA» BONUEN PROGRAMA GAUZATZEKO DEBAKO UDALAREN ETA DEBALAI ELKARTEAREN ARTEKO KOLABORAZIO-HITZARMENA

«Lehen aukera herria» bonu-programa DEBALAI Elkarteak kudeatuko du, Debako Udalaren finantzaketarekin eta ikuskapenarekin.

Kolaborazio-hitzarmen honetan ezarri dira Debako Udalaren eta DEBALAI Elkartearen konpromisoak eta jardun eremua, «Lehen aukera herria» bonuen programara atxikitzeko esparruan.

**Programaren xedea:**
Programa hau COVID egoerak herriko merkataritzan eta ostalaritzan eragin duen krisiari aurre egiten laguntzeko da. Beraz, programara atxikitu ahal izango dira herriko saltoki eta establezimendu guztiak, artisau dendak eta merkatura bertaratzen diren ekoizleak, baita herriko jatetxe eta tabernak ere.

**Programaren araudia:**

- 50 euroko 665 bonu banatuko dira (kanpainari atxikitako gastuaren arabera).

- Bonu bakoitza 5 azpi-bonutan banatuko da, kolore desberdinekoak, eta non erabili daitezkeen ere zehaztuko da. Hau da:

# CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DEBA Y LA ASOCIACIÓN DEBALAI PARA LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA DE BONOS "LEHEN AUKERA HERIA"

El programa de bonos "Lehen aukera herria" será gestionado por la Asociación DEBALAI con la financiación y supervisión del Ayuntamiento de Deba.

En el presente convenio de colaboración se establecen los compromisos y el ámbito de actuación del Ayuntamiento de Deba y de la Asociación DEBALAI en el marco de la adhesión al programa de bonos "Lehen aukera herria".

**Objeto del programa:**
Este programa está dirigido a ayudar a hacer frente a la crisis que ha provocado la situación del COVID en el comercio y la hostelería local. Por tanto, podrán adherirse al programa todos los comercios y establecimientos locales, las tiendas artesanales y los productores que acuden al mercado, así como los restaurantes y bares de la localidad.

**Normativa del programa:**

- 665 bonos de 50 euros (en función del gasto asociado a la campaña).

- Cada bono se dividirá en 5 subbonos de distinto color, especificando también dónde se pueden utilizar. Es decir:

1go azpi-bonua: arropa, konplementuak eta herriko artisauen produktuetan.

2. azpi-bonua: zerbitzuetan (ileapaindegi, fisioterapia, estetika, gestoria, aseguruak, liburu denda, burdindegi, loradenda, inprimategi, iturgintza, erreforma dendak).

3. azpi-bonua (5 €-ko 2 bonu): elikaduran (okindegi, arrandegi, harategi, ekodenda, fruta denda, merkatuko postuetan).

4. azpi-bonua (5€-ko 2 bonu): ostalaritzan (tabernak, jatetxeak, kafetegiak).

5. azpi-bonua: kanpainara atxikitako edozein establezimendutan erabili ahalko dira.

- Bonuek 50 euroko balioa izango dute; horietatik 15 euro Debako Udalak ordainduko ditu, eta gainerako 35 euroak bezeroek.

- Programa ekainaren 14tik uztailaren 11ra bitartean egingo da, eta bezeroek epe horretan kontsumitu beharko dituzte bonuak.

- Programara atxikitu nahi duten establezimenduek hitzarmen honen eranskinean eta Debako Udaleko web orrian (www.deba.eus) aurkituko duten dokumentua bete eta Debalai Elkartera (ibonerra@gmail.com) bidali beharko dute. Edozein zalantza argitzeko 943 192 452 telefonoara deitu daiteke.

- Bonuak erabiltzeko orduan herritarrak ezingo du bonuaren balioa baino gastu txikiagoa egin.

- Bonuen salmentari dagokionez, kopuruaren erdia Debalaikoek kalean ipiniko duten mahai batean salduko da, eta gainontzekoak turismo bulegoan.

Subbono 1: ropa, complementos y productos de artesanos locales.

Subbono 2: en servicios (peluquería, fisioterapia, estética, gestoría, seguros, librería, ferretería, floristería, imprenta, fontanería, tiendas de reformas).

Subbono 3 (2 bonos de 5 €): en alimentación (panaderías, pescaderías, carnicerías, ecotiendas, fruterías, puestos de mercado).

Subbono 4 (2 bonos de 5 €): en hostelería (bares, restaurantes, cafeterías).

Subbono 5: podrán utilizarse en cualquiera de los establecimientos adheridos a la campaña.

- Los bonos tendrán un valor de 50 euros, de los cuales 15 euros serán a cargo del Ayuntamiento de Deba y los 35 euros restantes a cargo de los y las consumidoras.

- El programa se desarrollará entre el 14 de junio y el 11 de julio, periodo durante el que se deberán consumir los bonos.

- Los establecimientos interesados en adherirse al programa deberán cumplimentar el documento que encontrarán en el anexo de este convenio y en la página web del Ayuntamiento de Deba (www.deba.eus) y enviarlo a la Asociación Debalai (ibonerra@gmail.com). Para cualquier duda pueden llamar al 943 192 452.

- Los y las ciudadanas no podrán hacer un gasto en el uso de los bonos inferior al valor del bono.

- En cuanto a la venta de bonos, la mitad se hará en una mesa que DEBALAI instalará en la calle, y el resto en la oficina de turismo.

- Kontsumitzaileak 16 urtetik gorakoak eta Deban erroldatua egon behar dute; bakoitzak gehienez 2 bonu erosi ahal izango ditu.

- Kanpaina bukatu ondoren, establezimenduek jaso dituzten bonu guztiak DEBALAI Elkartera eraman beharko dituzte, jatorrizko bonu txartelak salmenta-txartel bakoitzaren kopiarekin grapatuta.

- Faktura edo salmenta-txartelean argi eta garbi ikusi beharko da salerosketa-eragiketaren data.

- Enpresa parte-hartzaileek kanpainaren ezaugarrien berri eman beharko diete kontsumitzaileei.

- Saltokiek gehienez ere bonu 2 onartu ahal izango dute salmenta tiket bakoitzeko.

- Debalaiko kideek ez dute gestio gasturik ordaindu beharko, ez direnek 30€ ordaindu beharko dituzte gestio gastuengatik.

- Atxikitze-agiriaren sinatzaileak baimena emango dio Debako Udalari eta DEBALAI Elkarteari «Lehen aukera herria» programan parte hartzeko emandako datuak erabil ditzaten, programa hori gauzatzeko eta establezimenduentzat garrantzitsua den beste edozein informazio jakinarazteko (laguntzak, kanpainak, formakuntza…).

- Atxikipen-agirian emandako datuak errealitatearekin bat ez badatoz, Debako Udalak beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen jarduerak egiteko eskubidea, baita saltokiari baja ematekoa ere.

- Los y las consumidoras deberán ser mayores de 16 años y deberán estar empadronadas en Deba, pudiendo adquirir un máximo de 2 bonos por persona.

- Una vez finalizada la campaña, los establecimientos deberán llevar todos los bonos recibidos a la Asociación DEBALAI, grapando los bonos originales con la copia de cada ticket de venta.

- En la factura o ticket de venta se deberá ver claramente la fecha de la operación de compraventa.

- Las empresas participantes deberán informar a las personas consumidoras de las características de la campaña.

- Los comercios podrán aceptar hasta un máximo de 2 bonos por ticket de venta.

- Los miembros de DEBALAI no tendrán que abonar gastos de gestión, los que no lo sean deberán abonar 30 €.

- El firmante del documento de adhesión autorizará al Ayuntamiento de Deba y a la Asociación DEBALAI a utilizar los datos facilitados para participar en el programa "Lehen aukera herria", para la realización de dicho programa y para comunicar cualquier otra información relevante para los establecimientos (ayudas, campañas, formación).

- Si los datos aportados en el documento de adhesión no se ajustan a la realidad, el Ayuntamiento de Deba se reserva el derecho a realizar las acciones que considere oportunas, así como a dar de baja al comercio.

**Debako Udalaren konpromisoak:**

1) 10.000 euro jarriko ditu «Lehen aukera herria» bonuen zenbatekoa ordaintzeko. Partida hori DEBALAI Elkarteari ordainduko zaio, udal mugartean programan sartzen diren enpresa eta establezimenduen artean banatu eta aplikatu beharreko deskontuak ordaintzeko funtsen gordailu kontzeptuarekin.

2) Hitzarmena sinatu eta hurrengo 15 eguneko epean Debako Udalak «Lehen aukera herria» bonuetarako partida DEBALAI Elkarteak adierazitako kontu korrontean sartuko du (10.000 euro).

**DEBALAI Elkartearen konpromisoak:**

1) Debako Udalak bideratutako bonuak kudeatzea, bonuak egitea, banatzea, trukatzea eta kontrolatzea.

2) Programaren berri programara atxikitu daitezkeen establezimendu guztiei zabaltzea. Eta baita kontsumitzaileei zuzendutako zabalkundea egitea ere.

3) Debako Udalak emandako funtsen gordailuzain eta banatzaile izatea, bonuak banatzeko eragiketak koordinatuz hobaria jaso duten salerosketa eragiketetan.

4) Harremanetarako bide izatea saltoki parte hartzaileekin.

5) Programara atxikitzea artikulatu eta zuzen gauzatzen dela kontrolatzea.

6) Udalari informazioa eman eta programa bukatzean helburua bete dela egiaztatzeko ziurtagiriak eta enpresa eta establezimenduei egindako transferentzien egiaztagirien likidazioa aurkeztea;

**Compromisos del Ayuntamiento de Deba:**

1) Aportará 10.000 euros para abonar el importe de los bonos "Lehen aukera herria". Esta partida se abonará a la Asociación DEBALAI en concepto de depósito de fondos para el pago y distribución de los descuentos a aplicar entre las empresas y establecimientos del término municipal incluidos en el programa.

2) En el plazo de 15 días desde la firma del convenio, el Ayuntamiento de Deba procederá al ingreso de la partida de 10.000 euros para los bonos "Lehen aukera herria" en la cuenta corriente indicada por la Asociación DEBALAI.

**Compromisos de la Asociación DEBALAI:**

1) La gestión, elaboración, distribución, canje y control de los bonos emitidos por el Ayuntamiento de Deba.

2) Difundir el programa a todos los establecimientos que puedan adherirse al mismo. Así como la difusión dirigida a los y las consumidoras.

3) Ser depositario y distribuidor de los fondos aportados por el Ayuntamiento de Deba, coordinando las operaciones de distribución de bonos en las operaciones de compraventa bonificadas.

4) Mantener contacto con los comercios participantes.

5) Controlar la articulación y correcta ejecución de la adhesión al programa.

6) Presentar al Ayuntamiento, antes del 31 de julio de 2021, los certificados que informen y acrediten el cumplimiento del objetivo al finalizar el programa y la liquidación de los justificantes de las

beti ere, 2021eko uztailaren 31 baino lehen.

7) Egiten den publizitaten Debako Udalak finantzatzen duela adieraziko da.

**Hitzarmenaren indarraldia**

Kolaborazio-hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da 2021eko uztailaren 31 arte, agiri justifikagarriak aurkezteko datak eta itzulketa eragiketen azken likidaziorako datak edozein direla ere.

Deban, 2021eko ekainaren 7an

transferencias a empresas y establecimientos.

7) En la publicidad se hará constar que el programa lo financia el Ayuntamiento de Deba.

**Vigencia del Convenio**

El presente convenio de colaboración entrará en vigor el día de su firma y estará vigente hasta el 31 de julio de 2021, cualquiera que sea la fecha de presentación de la documentación justificativa y la fecha de liquidación final de las operaciones de reintegro.

Deba, a 7 de junio de 2021

# ERANSKINA - ANEXO

**LEHEN AUKERA HERRIA 2021 BONU-PROGRAMARI ATXIKITZEKO DOKUMENTUA**

DOCUMENTO DE ADHESIÓN AL PROGRAMA DE BONOS PRIMERO EN EL PUEBLO 2021

**ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK / DATOS DEL ESTABLECIMIENTO**

- **Establezimenduaren izen soziala /** *Razón social de establecimiento:*
- **Establezimenduaren izen komertziala/** *Nombre comercial:*
- **Jarduera sektorea (Adb.: sukaldeko tresneria, ile-apaindegia, arropa denda…) /** *Sector de actividad (Ej.: menaje-hogar, cuidado personal, textil…):*
- **Langile kopurura (autonomoak barne)/***Nº de personas empleadas (incluido autónomos):*
- **IFZ/IFK /***NIF/CIF:*
- **Establezimenduaren helbidea /** *Dirección del establecimiento:*
- **Harremanetarako pertsona /** *Persona de contacto:*
- **Kargua /** *Cargo:*
- **Helbide elektronikoa /** *E-mail:*
- **Telefono finkoa/** *Teléfono fijo:*
- **Mugikorra /** *Móvil:*
- **Web orrialdea /** Página web:

Nik, ________________________________ jaunak/andreak, NAN: _________________ aipatutako enpresa edo dendaren ordezkari naizenez, «Lehen aukera herria bonuak 2021» kanpainan parte hartzeko eskaera egiten dut. Horretarako, honako konpromisoak hartzen ditut eta honakoak adierazten ditut, ni erantzule naizela:

- Establezimendua Deban dago.
- Enpresako langile kopurua honakoa da: _____. Horretarako, langile autonomoak eta besteren konturako langileak hartu ditut kontuan.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ditut, eta, hala badagokio, baita diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak ere.
- Emandako datu guztiak egiazkoak dira.
- Kanpainan parte hartzearen ondoriozko araudia ezagutzen eta onartzen dut.

D./Dña.__________________________________
_
con DNI ___________________________ en representación de la empresa firma la solicitud de adhesión al Programa «Lehen aukera herria 2021» formalizando las siguientes declaraciones responsables y asumiendo los siguientes compromisos:

- Que su establecimiento está en Deba.
- Declara que el número de personas empleadas en la empresa es de ____ contando para ello tanto el personal autónomo como las personas trabajadoras por cuenta ajena.
- Declara que se halla al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, y en su caso, de las obligaciones de reintegro de subvenciones.
- Declara la veracidad de todos los datos aportados.
- Manifiesta conocer y asumir la normativa derivada de la particiación en la campaña.

Deban, 2021eko ekainaren 5ean

Enpresaren ordezkariaren sinadura / Firma del/de la representante de la empresa